Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

HIRIGINTZA ETA ESPAZIO-ANTOLAKETA

Euskal Kostalde-Aturriko
elkargo azpiko Tokiko
Hirigintza Plana

Antolaketa eta Garapen Iraunkorren Proiektua

Pays Basque
Euskal Herria
COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION
HIRIGUNE ELKARGOA
COMUNAUTAT D'AGLOMERACION

@communautePB I communaute-paysbasque.fr

ANGLET Bayonne BIARRITZ Bidart BOUCAU

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

GAUR, HIRIA

Hiri-kalitatea eta bizi-kalitatea uztartzea

Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte, Bokale.
Euskal Kostalde-Aturriko lurralde eremua osatzen dugu, 134.000 biztanle biltzen dituena, Euskal Hirigune Elkargoaren baitan.

Gure hiriak ezberdintasunez beteak dira, solidarioak dira eta Ipar Euskal Herriko eta Hego Akitaniako patu komun batek bateratzen ditu.

Hura zainduz garai modernoetara egokitzen jakin dugun ondare bat partekatzen dugu. Gainera, biztanle guzien bizi-kalitatea hobetzeko axola dugu.

Gure historia Ozeano Atlantikoak, Aturrik, Errobik eta Pirinioetako mendiek marraztutako geografiarekin hertsiki lotua da. Lurralde honetako emazte eta gizonek harreman hertsiak garatu dituzte ibaiarekin eta ozeanoarekin: merkataritza portutik industria porturaino, hiri gotortutik arrantzaleen herrietaraino, kostaldeko turismotik lorezainen eta baratzezainen hiriraino. Gure baloreak oinarritzen dira naturaren eta biziaren alderako atxikimenduan.

Hirugarren sektoreko ekonomia nagusi den testuinguruan (zerbitzuak, turismoa eta abar), gune ekonomiko eta produktibo iraunkorrak sortu ditugu. Unibertsitate gune bat eraiki dugu gure gazteentzat, enplegu kualifikatuak bermatzen dituzten formakuntzak eskainiz. Gizarteko aniztasuna bultzatzen duten bizitegi eskaintzak garatu ditugu. Denentzat etxebizitza eskuratzea zailtzen duten sasoiko alokairuak mugatu eta erregulatu ditugu. Lehen mailako ekipamenduak eta zerbitzuak garatu ditugu hirien bihotzean. Baitezpada atxiki nahi dugun herri giroa biziarazten duten espazio publikoak eraiki ditugu. Tram'busak gorpuztutako zinezko mugikortasun politika gauzatu dugu.

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

Emaitza horiek guziak ikusgarriak dira, baina oraindik ere ez dira nahikoak. Gaur egun, desafio handiak ditugu altxatzeko, erronka garrantzitsuei buru egin behar diegu, eta haien itzalak arriskuan jartzen ditu egungo gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-orekak: gure biztanleek etxebizitza eskuratzeko borrokak gure ahaleginak areagotzea eskatzen du; klima-aldaketaren ondorioek lehenbailehen jardutera behartzen gaituzte, bioaniztasuna eta biztanleen osasuna zaintzeko; gure lur naturalak –laborantzakoak eta oihanekoak– babestu behar dira, beren funtzio ekologiko eta hazkurri emaileak berma ditzaten; autoz bakarrik ibiltzea geldiarazi behar da, hiri eta auzoak ibilgailuz husteko; adin guzietako biztanleen bizi-kalitatea eta osasuna bermatu behar dira.

Desafio horiek ezin dira herrien heinean bakarrik altxatu. Horregatik elkarrekin ari gara lanean, eta hala egiten segituko dugu, gure Herriarteko Tokiko Hirigintza Planaren (hTHP) barnean. Erronka horien guzien bidegurutzean, Euskal Kostalde-Aturriren hiri-antolaketaren politikak funtsezko zeregina du gure hiriak lehenbailehen egokitzen hasteko. Gure natura- eta hiri-ondarearen bizia baldintzatzen du ere.
Izan ere, hori da gure erantzukizuna: denen ondasuna zaindu eta gure haurrei hiri jasangarri eta desiragarria uztea.

Etorkizunera buruz begiratu behar dugu, eta, horretarako, engaiamendu sendoak hartu behar ditugu, gure lurraldea orekatua, solidarioa eta denentzako baliagarria izan dadin. Horixe da Euskal Kostalde-Aturriko Antolaketa eta Garapen Iraunkorren Proiektuaren helburua.

Bi betebehar ase behar ditugu.

Lehenik eta behin, gure natura-ondarea eta gure auzoen identitate berezia biziarazi eta baloratu behar dira. Hiria berriz asmatu behar dugu, bertikalki eraikiz, hiri-hazkundea mugatuz eta espazioaren eta lurraren kudeaketa xuhurra eginez.

Halaber, gure hirien egokitzapena aitzinetik ikusteko betebeharra dugu, denak duintasunez bizi ahal izateko, klima-aldaketak kaltetutako mundu batean. Aldi berean, herritarren oinarrizko beharrak bermatu behar ditugu: bizitegia, elikadura, joan-etorriak, lana, osasuna eta zaintza, kultura eta abar, gizarte izaten jarraitzeko.

Erreusitzeko, gure ekintza bateratua zabaltzeko asmoa dugu, Antolaketa eta Garapen Iraunkorren Proiektu (AGIP) honetan bildutako 4 engaiamenduen eta 12 ekintza zehatzetan oinarrituz.

Claude OLIVE,
Angeluko auzapeza

Jean-René ETCHEGARAY,
Baionako auzapeza

Maider AROSTEGUY,
Biarritzeko auzapeza

Emmanuel ALZURI,
Bidarteko auzapeza

Francis GONZALEZ,
Bokaleko auzapeza

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

ZER DA AGIP

ANTOLAKETA ETA GARAPEN IRAUNKORREN PROIEKTUA?

Tokiko Hirigintzako Plan (THP) bat osatzen duten dokumentu nagusietarik bat da AGIP. Lurralde-diagnostikoa egin ondoan, antolaketa-, ekipamendu- eta hirigintza-politiken orientabide orokorrak zehazten ditu AGIPek.

Euskal Kostalde-Aturriko AGIPek Bokale, Baiona, Angelu, Biarritz eta Bidarteko hirien ikusmolde kolektibo eta koherentea gorpuzten du, hirigintza-, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapeneko gaiei buruz. Ikusmolde hori ezinbestekoa da lurraldearen bilakaerarako.

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

aurkibidea

#1. ENGAIAMENDUA: **HIRI SOLIDARIOAGOA ERAIKITZEA**

1 ekintza:
Ipar euskal herriko eta hego landesetako biztanleentzako funtsezko eginkizunak betetzea . . 6

2 ekintza:
Denek kalitatezko bizitegia eskuratu ahal izatea 7

3 ekintza:
Gure hirietan hurbileko sare bat ehuntzea. 7

#2. ENGAIAMENDUA: **GURE INGURUMEN-INPAKTUA MURRIZTEA ETA HERRITARREK HORRETAN PARTE HAR DEZATEN AHALBIDETZEA**

4 ekintza:
Gure hirien ingurumen-errendimendua hobetzea 8

5 ekintza:
Hiriko funtzioak nahastea distantziak murrizteko 9

6 ekintza:
Bakarkako autoaren ordezko mugikortasunak garatzea 9

#3. ENGAIAMENDUA: **GURE ONDARE NATURALAK ETA KULTURALAK BIZIARAZTEA**

7 ekintza:
Gure lurrak eta gure bizi ingurumena zaintzea 10

8 ekintza:
Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea 11

9 ekintza:
Gure ondare kulturala agerian ezartzea 11

#4. ENGAIAMENDUA: **HIRI BIZIGARRI BAT ERAIKITZEA**

10 ekintza:
Aldatuz doazen auzoen sare batean bermatzea 12

11 ekintza:
Adimen kolektiboan oinarrituriko ekintza 13

12 ekintza:
Gure hiriak dinamizatzea ekonomia produktiboari esker 13

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

#1 engaiamendua

HIRI SOLIDARIOAGOA ERAIKITZEA

"Elkartasuna da gure lurraldearen oinarri eta bihotz altxagarria."

Solidarioak gara inguruko lurraldeekin, haiekin partekatuz gure bizi eremutik haratago distiratzen duten eta erabilgarriak diren gure ekipamenduak eta zerbitzuak, hala nola ospitaleak, tren geltokiak edo aireportua.

Solidarioak gara gure hurbileko sarea osatzen duten eta "elkarrekin bizitzea" errealitate partekatua bihurtzen duten hiriekin.

Solidarioak gara gure hirietako bihotzetan beren beharrak ase behar dituzten biztanle guziekin, kalitatezko bizitegiak arrazoizko prezioan eskura ditzaten –eta hori eraman beharreko borroka nagusietarik bat da–, lurraldean –non atxikimenduzko loturak sortu baitira– ikasi eta lan egin dezaten, eta bizi-kalitaterako funtsezkoak diren zerbitzu, ekipamendu eta saltegietara errazki joan daitezen.

Gure hiriek pertsona guziei eman behar dizkiete hazteko eta loratzeko ahala eta molde harmoniatsuan bizitzeko lekua eta erraztasunak.

1

IPAR EUSKAL HERRIKO ETA HEGO LANDESETAKO BIZTANLEENTZAKO FUNTSEZKO EGINKIZUNAK BETETZEA

- Lurraldeko garraio sare handien arteko intermodalitatea **indartzea:** tren geltokiak, Txik Txak sarea eta aireportua.
- Osasun-ekipamenduak **hobetzea:** ospitaleak, klinikak, medikuntza-zentro espezializatuak eta abar.
- Tokiko ekonomiari lotutako formakuntza- eta ikerketa-ibilbideak **aberastea**.
- Merkataritza-gune handiak egungo ingurumen- eta gizarte-erronketara hobeki egokitutako moldeetara berregituratzen **laguntzea**.

BAIONAKO GELTOKIA

mugikortasunen izarraren erdigunea

Trenak, autokarrak, Tram'bus-a eta abar; horra bakarkako autoaren ordezko zein aterabide eskaintzen dituen TXIK TXAK sareak eguneroko bidaietarako, prezio apal eta solidarioetan. Autoaren nagusitasuna ez da halabeharra Ipar Euskal Herrian, eta TXIK TXAK sareari esker beste gisan eta aise mugitzeko aterabideak daude.

© CAPB / Fred de Bailliencourt

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

2

DENEK KALITATEZKO BIZITEGIA ESKURATU AHAL IZATEA

- Enplegu- eta bizi-lekuetatik ahal bezain hurbil egon behar duten bizitegien behar gorriari **erantzutea** desberdintasun sozialak murrizteko, gizarteko aniztasuna mantentzeko eta biztanle guzien bizi kalitatea hobetzeko.
- **Beharrei egokitutako bizitegiak ekoiztea, Tokiko Bizileku Programaren (TBP) izpirituan:**
  - ▶ Alokairuko bizitegi sozialen ekoizpena areagotzea, etorkizuneko bizitzaileen diru sartzeen maila edozein izan dadin;
  - ▶ Bizitegi sozialen jabegora heltzeko bidea erraztea eta arrazoizko prezioko bizitegien eskaintzak garatzen laguntzea;
  - ▶ Tamaina egokiko bizitegiak ekoizten direla zaintzea.
- Ikasleen, langile gazteen, adineko jendeen, ahalmen urritasuna duten pertsonen, egoera prekarioan dauden pertsonen eta jende ibiltarien beharrak **asetzea**.

© OFFICE 64 / Bernard Signoret

BOKALEn

146 bizitegi sozial berri

Hiriaren erdialdean, tren geltokitik hurbil, 146 bizitegi sozial –alokairukoak eta jabegora heltzekoak– eskainiko ditu Biremont programak 2025ean. Ahal bezain jende gehien jabegora heldu ahal izateko, programak Elkartasunezko Alokatze Kontratu Erreala (EAKE) baliabidea integratzen du. Baliabide horrek eraikinaren eta lurraren jabegoa bereizten du, ondasun higiezin baten eros-prezioa azkarki apaltzeko.

17 auzo eta **5** hiri barne daude,

eta gure hirien hiri-egitura dira (2024ko datuak)

3

GURE HIRIETAN HURBILEKO SARE BAT EHUNTZEA

- Gure hiriak **trinkotzea** denentzat helgarriak diren zerbitzuak eta saltegiak eskaintzen dituzten 5 hiri barneen eta 17 auzo bizien inguruan.
- Gure karrikak eta plazak, biziguneak eta topaguneak **biziaraztea**, eremu publikoak hobetuz eta hirian zirkulazio arinak garatuz.
- “Drive” motako mugimendu-merkataritzaren garapena **mugatzea**, auzoen bihotzean saltegien plantatzea errazteko.

© Ville de Biarritz

BIARRITZEn

San Xarles plazaren berritzea

San Xarles plaza berritu da. Orain, zinezko auzo bihotz bat bilakatu da, landarez betea da, iturri berri bat du, eta oinezkoentzat da bakarrik. Joan-jinkaria hortik pasatzen da. Gainera, ostiral guziez merkatua egoten da hor, jatetxeetako terrazen eta hurbileko saltegien artean. Azkenean, “herrixka” giro horrek biztanleen arteko gizarte lotura indartzen du.

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

#2 engaiamendua

"Berotegi-efektuko gasen emisioak mugatuz, azkarki parte hartzen dugu ingurumenaren aldeko defentsan."

Gure ingurumen-inpaktua murriztea eta herritarrek horretan parte har dezaten ahalbidetzea

Eta denen osasuna zaintzen dugu ere, herritar bakoitzari ekintzarako gaitasun handiagoa eskainiz.

Egun guziez, bideetako trafikoagatik, gure bost hirietako auzoak galkatuak eta kutsatuak dira. Alta, gure joan-etorriak berriz pentsatzeko aterabiderik ez da falta. Eta soluzio horiek gero eta gehiago erabiltzen badira ere, are gehiago garatu behar dira.

Gure karbono-aztarna murrizteak behartzen gaitu ere antolamenduen eta eraikinen erosotasuna eta energia-errendimendua hobetzera. Berriz ere, aterabideak atzeman eta probatu behar dira, beste gisaz eraikitzeko, ingurumena errespetatuz.

4

GURE HIRIEN INGURUMEN-ERRENDIMENDUA HOBETZEA

- Eraikuntza trinkoagoen **alde egitea**, lurra optimizatzea eta espazio iragazkorrak babestea.
- Energia berriztagarrien ekoizpena eta erabilera **indartzea**.
- Eraikinen soiltasun energetikoa **sustatzea**, diseinutik hasi eta materialak hautatzeraino.
- Programen funtzio aniztasuna **garatzea**, bai eta haien modularitatea / itzulgarritasuna ere, beharrez etorkizunean beste erabilera batzuk izan ditzaketen aparkalekuekin egin bezala, adibidez.
- Eraikinetan erabiltzaileen eta bizitzaileen erosotasuna **areagotzea:** orientazioa, aireztapena, kanpoko espazioa, pribatutasuna eta abar.
- Euri-uren kudeaketa eta hondakinen bilketa **bermatzea**.

BAIONAn

Energia positiboko bizitegiak Prissé auzo berrian

2026an, Prissé auzoan, 350 bizitegi berri eskura emanen dira (haietarik % 45 sozialak izanen dira). Hala, energia-errendimenduko ereduzko auzoa izanen da Prissé. Zurezko egiturako paretaz osatutako aitzinaldeak, arroka-ilezko kanpoaldeko isolamendu termikoa, zur galdara kolektibo baten bidez elikatutako berogailuak eta ur beroa eta abar. Erosotasuna eta karbono-aztarna apala izanen dira nagusi hor.

© HSA / Côté Sud Photo

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

ELKARGOKO 26 LAN EREMU

Euskal Kostalde-Aturriko eremuan (2024ko datuak)

5

HIRIKO FUNTZIOAK NAHASTEA DISTANTZIAK MURRIZTEKO

- Tokiko enplegu iraunkorrak bermatuko dituen ekonomia dibertsifikatuaren norabidea **segitzea**.
- Enplegua sustatzea eta aktiboetatik ahal bezain hurbil **mantentzea**, enpresei eskainitako espazioak zainduz eta bizitegi-funtzioekin bateragarria den ekonomia garatuz.
- Kirol-, kultura- eta unibertsitate-ekipamenduen kokalekuari garrantzia **ematea**.
- Denek naturaz (parke eta lorategi publikoez, oihanez, laborantzako eremuez, hondartzez eta abarrez) gozatzeko **aukera izatea** eta horietara errazki joan ahal izatea, hots, etxetik edo lanetik 300 metro baino gutiagora.

© Bidart / Sylvain Jolibois

BIDARTEn

Toki Toki liburutegi berrian integratutako bizitegi sozialak

Herriko eskola zaharrak liburutegi bilakatu ziren 2020an, eta hori parada izan zen eraikinean bizitegi sozialen eskaintza bat txertatzeko, Bidarteko herri barnean, hondartzetatik hurbil. Proiektuak Les Rubans du Patrimoine saria eskuratu zuen, tokiko enpresen ezagutza teknikoei esker ondare eraikia zaharberritzen duten lurralde elkargoei goresten dituena.

6

BAKARKAKO AUTOAREN ORDEZKO MUGIKORTASUNAK GARATZEA

- Garraio publikoaren eskaintzak hedatzen **segitzea**.
- Bizikleten eta oinezkoen bideak molde adierazgarrian **garatzea**.
- Autokidetzaren eta auto-partekatzearen garapena **bizkortzea**.
- Aparkatze pribatua **mugatzea**.

© CARB / Jean-Louis Hubbé

BIZIKLETA BIDEEN SAREAN

erabiltzaile gero eta gehiago

Bizikleta bideen garapenak, eta baita aparkaleku seguruen eta bizikletak alokatzeko zerbitzuen eskaintzak garatzeak ere, bizikletaren erabileraren emendatze azkarra eragin dute, dela lanera joateko, dela aisialdirako.

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

#3 engaiamendua

"Gure hiriak paisaia paregabearen parte dira, eta gure hiriek naturarekin eta gure arkitektura-ondarearekin bat egiten dute."

Gure ondare naturalak eta kulturalak biziaraztea

Baitezpadakoa da euskal eta gaskoi harribitxi hau biziaraztea.

Lur naturalak –hots, laborantzakoak eta oihanekoak– zainduko dira. Hiriak landarez beteko dira eta hirien arkitektura-ondarea agerian emanen da.

Gure ondarea biziarazten eta biztanleen beharren eta bizimoldeen bilakaeretara egokitzen saiatuko gara, gure ondarearen aberastasuna transmititzeko ondoko belaunaldiei.

HELBURUA: Laborantza-, natura- eta oihan-eremuen kontsumoa

%50 MURRIZTEA

7

GURE LURRAK ETA GURE BIZI INGURUMENA ZAINTZEA

- Orain arte hirigintzari eskainitako eremuak natura-, laborantza- eta oihan-ingurune **bihurtzea** eta espazio horien kontsumoa bitan zatitzea.
- Gure natura-ondarea **babestea** (naturagune nabarmengarriak, sailkatutako oihan-eremuak, bioaniztasun-biltegiak eta igarobide ekologikoak...) eta ingurune degradatuak leheneratzen laguntzea.
- Hiriko laborantza **babestea** eta sustatzea, elikaduraren, osasunaren eta ingurumenaren ikuspegitik.
- Kirol- eta aisialdi-jardueretarako espazioak **eskaintzea**.
- Zuhaitz handien bizikortasuna **bermatzea** eta zuhaitz berriak landatzea, eremu publikoan zein pribatuan.

ANGELUN

Maharin parkea, birika berde bat higiezin-proiektu baten ordez

Maharineko zelaiaren berritzeak, 2016an, leku hau berdegune eta gune ur-biltzaile bihurtzea ahalbidetu zuen. Ordutik, gainera, arrakasta handiko ibilaldi leku bilakatu da. Ingurumen zainduko eremu baten adibide ederra da, higiezin-proiektu desegoki bat egitea pentsatzen zelarik orduan, leku honen bioaniztasun naturala mehatxatzen zuena.

© CAPB / Fred de Bailliencourt

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

8

KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOETARA EGOKITZEA

- **Itsasbazterrean**, kosta-lerroaren gibelatzea kontuan hartu eta aitzintzea.
- **Ibaien eta ibaiadarren inguruetan**. uholde-arriskuak kontuan hartzea eta haien eboluzioak aitzinetik asmatzea (itsasoaren maila igotzea eta abar).
- Uraren ziklo naturalak (euri-urak, edateko ura, ur zikinak, lurzoruaren iragazkortasuna eta abar) integratuko dituen kudeaketa **garatzea**.
- Beroguneen kontra **borrokatzea**.

BIDARTEn

Les Embruns-eko zelaigunea naturagune bihurtua

1980ko hamarkadaren bukaeran urbanizazioak irentsi zuen Les Embruns-eko zelaigunea. Baina, 2024an, hondarrez eta landarez betetako naturagune bihurtu zen, berriz. Orain, itsasoa bistan duen kontenplazio eta lasaitze leku berri bat eskaintzen die jende guziei.

9

GURE ONDARE KULTURALA AGERIAN EZARTZEA

- Jadaneko ezagutuak diren ondareak (monumentu historikoak, ondare-sektore ohargarriak eta abar) babesteko eta nabarmentzeko politikak **segitzea**.
- Auzoen historia eta nortasuna irudikatzen duten lekuko ondarearen elementuak **ezagutzea** eta agerian ezartzea.
- Hirian, zuhaitzari behar duen espazioa **ematea**, parke eta lorategi nabarmengarriak zainduz.

BIARRITZEn

Javalquinto gaztelua berritzea

Tram'Bus-aren etorrerarekin, Biarritzeko hiriaren erdialdean dagoen Ixelleseko plaza berrantolatu eta lorategi-plaza baten gisa egokitu zen. Aldi berean, Biarritzeko Turismo eta Kongresu Bulegoa hartzen duen Javalquinto etxea zaharberritu zen. 2023an aitzinaldea freskatu zen, eta, hala, Frantziako Bigarren Inperioko arkitektura pitoreskoa duen eraikinari jatorrizko kolorea eman zitzaion; "Don Magnifico" Javalquintoko markes eta Osunako XIII. duke ospetsuak eraiki zueneko kolore hura, hain zuzen.

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

#4 engaiamendua

HIRI BIZIGARRI BAT ERAIKITZEA

"Gure hirien barreiatze fasea bururatu da."

Bistan da, egungo eta etorkizuneko biztanleen beharretara egokitzeko, gure hiriek garatzen segituko dute; baina, esku-hartze espezifikoen bidez, eta molde neurtuan, batez ere garraio publikoko lineen inguruetan eta jada artifizializatuak diren lurretan. Hiri-hedapenak mugatuko dira gure auzoen eraikuntza bururatzera.

Hiria elkarrekin eta zentzuz eraikitzeko, zainduko ditugu eraikinen kalitatea, hiri-integrazioa, ingurumen-errendimendua, gizarteko aniztasuna eta gizarte lotura sortzeko gaitasuna.

Hitzemana betetzeko, gure elkargoak hiriaren eraikuntzako eragileekin batera ari izanen dira lanean, biztanleentzat erabilgarriak eta desiragarriak diren auzoak elkarrekin diseinatzeko.

Tresna espezifikoak
(Antolaketa eta Programazio Norabideak - APN),

50 BAT GUNEREN antolamendua gidatzeko *(2024ko datua)*

10

ALDATUZ DOAZEN AUZOEN SARE BATEAN BERMATZEA

- Garraio publikoen eta hiribide lasaien inguruko hiri-berrantolaketak **laguntzea**, honako leku hauek adibidetzat hartuz:
  - **Geltokien inguruko auzoak:** Aturri ibaiaren eskuineko bazterra, Irati;
  - **Txik Txak T1 linean dauden auzoak:** Angelu hiriaren erdialdea, Aguilera;
  - **Txik Txak T2 linean dauden auzoak:** Jacques Duclos hiribidea (Bokale); Louis de Foix etorbidea (Baiona), R. de Martres etorbidea eta Montalibet karrika (Baiona);
  - **Txik Txak L3 linean dauden auzoak:** RD810 errepidearen zati batzuk Angelun, Bidarten eta abar;
  - **Txik Txak L6 linean dauden auzoak:** BABeko hiribidea;
  - **L7 linean dauden auzoak:** Angelu Quintaoutik hasi, Baiona, Bokale eta Tarnoseraino.
- Egun diren auzoen eraikuntza bururatzera mugatuko diren **hiri-hedapenak**; hala nola, Sutar (Angelu), Prissé (Baiona), Séqué (Baiona).

ANGELUn

Bovero gunea ereduzko kasua

Bovero auzo berria Tram'Bus T1 linean kokatua da, unibertsitate campusetik eta merkataritza-gune batetik hurbil. 2020an bururatu zen. Hiri-integrazioaren eta gizarteko aniztasunaren adibide ezin hobea da. 181 familia-bizitegi, ikasle-bizitegi eta bizitegi sozial (bizitegien % 70) eta 8 saltegi (eraikinaren beherean) daude arkitektura-multzo orekatu eta solidario berri honetan.

© HSA / Côté Sud Photo

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

11

ADIMEN KOLEKTIBOAN OINARRITURIKO EKINTZA

- Esku-hartze publikoa **areagotzea**, hiri-garapen kontrolatua eta koherentea bermatzeko, toki egokian eta une egokian.
- Hiriaren garapena **planifikatzea eta arintzea**, biztanleen bizi-kalitatea zaintzeko, eragiketen eta horien gauzatze-faseen ikuspegi orokorra egituratuz (adibidez: finkatzea epeak, ikerketa-perimetroak, igurikatze denborak eta abar).
- Ekimen pribatuei lege muga zorrotzagoak **ematea:** diseinua, programazioa, gizarteko aniztasuna, ekipamenduen finantzaketa eta abar.

© V.Biard

PATXA'MA

Hirigintza taktikoa

Hirigintza taktikoa, okupatu gabeko lur edo eraikinetan lekuko bizia behin-behinean berpizteko ekimenak biltzen dituena, hedatzen ari da hiri eta lurraldeetako eraikuntzako praktiketan. Orduan, eraikinak, erosten direnetik denbora behar duten eragiketa globalen parte gisa suntsitu arte, eragile ekonomiko edo soziokulturalen esku ezartzen dira.

12

GURE HIRIAK DINAMIZATZEA EKONOMIA PRODUKTIBOARI ESKER

- Lan eremuak birika ekonomiko eta produktibo **bilakatzea**, hirian ezin hobeki integratuak, Jorlis-en, Redon-en edo Angelu, Bokale eta Baionako portuetan bezala.
- Teknopoloen garapena osoki **bururatzea**, haien funtsezko zeregina indartzeko ikasleen, ikertzaileen eta enpresa berritzaileen aldean.
- Antolamendu-eragiketetan (bizitegiak, saltegiak, ateleriak, bulegoak) funtzio-aniztasuna **bultzatzea**, hurbil bizi eta lan egiteko eta auzo biziak garatzeko.

© CAPB / Côté Sud Photo

IZARBEL

Teknopoloak garatzen segitzen du

Izarbel teknopoloa 10 hektareatan plantatua da Bidarten. Puntako numerikoaren alorrean espezializatua da. Biltzen ditu 110 enpresa eta 1.000 langile baino gehiago, inkubagailu bat, mintegi bat, 3 enpresa-hotel, ESTIA ingeniaritza-eskola eta Pays Basque Digital kluster numerikoa. Izarbel-ek abantaila handiak ditu, eta, horri esker, leku hau teknopolo oso eta dinamikoa da. Hura hedatzeko antolamendu-proiektu bat eginen da, eta proiektu horren kalitateak eredugarria izan beharko du.

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

xehetasun guziak hemen

euskal kostalde aturriko elkargo azpiko tokiko hirigintza plana:

urratsak eta idazte-modalitateak

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

Envoyé en préfecture le 18/11/2024
Reçu en préfecture le 18/11/2024
Publié le
ID : 064-216401406-20241113-DCM20241113_01-DE

PAYS BASQUE
EUSKAL HERRIA

COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION
—
HIRIGUNE ELKARGOA
—
COMUNAUTAT D'AGLOMERACION

ANGLET
Bayonne
BIARRITZ
Bidart
BIDARTE
Boucau